

Bertaratutako kideak:

D. Juan Mendizabal Olaizola

/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

Doña Arantxa Ruiz Vidorreta

Ikastetxeetako Irakasleak-STEILAS

Doña María Teresa Módol Betriu

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. CONCAPA

Ezin etorria adierazi dute:

Don Eduardo Piquer Lapuerta

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria ANPE

Doña Sonia Garcia Cifuentes

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Don Javier Martínez Domingo.

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. HERRIKOA

Doña María Teresa Módol Betriu

Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. CONCAPA

Doña Laura Sanzol Olleta

Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an, 16:45ean, Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, lehen deialdian quorumik lortu ez zenez, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak online bilkura egin zuen 2026ko maiatzaren 7an, Alicia Ruiz Oria andrea buru zela, bokal guztiak bertan zirela, eta Sonia Soret Eguiluz andrea idazkari zela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Aurreko bilkurako akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
2. Lehendakariaren informazioa
3. Jardunaldien balorazioa
4. Kide berri bat sartzea.
5. Osoko bilkurako gai-zerrendaren proposamena onartzea.
6. Galde-eskeak

1.- Aurreko bilkurako akta berrikustea eta, hala badagokio, onartzea.

Lehendakariak bilkurari hasiera eman dio eta Batzorde Iraunkorraren aurreko bilkurako akta onartzea eskatu du.

Bertaratutako kideen baiespenez onartu da.

2.- Lehendakariaren informazioa.

Alicia Ruiz andreak parte hartu duen bilerei eta topaketei buruzko errepasoa egin du.

Batzordeburuaren bertaratzeak eta bilerak:

- Apirilaren 24an Con-Ciencia jardunaldia NUPen.
- Apirilaren 25a, SKOLAGUN jardunaldia.
- Maiatzaren 4an, Bizikidetzari buruzko Dekretua aurkezteko ekitaldia.
- Maiatzaren 5ean, sari-banaketa Baluartan.

3.- Bokal berri bat sartzea Osoko Bilkuran.

Alicia Ruiz andreak Batzorde Iraunkorrari jakinarazi dio Nafarroako Berdintasun Kontseiluak beste kide bat proposatu duela María Fernanda León Jiménez andreaken ordezkari, eta hark uko egin diola.

4.- Hurrengo jardunaldietako arauak.

Jakinarazi da hurrengo jardunaldietarako gaiak baloratuko direla, eta proposamenak onartu direla.

5.- Ikasleen ordezkaritza Osoko Bilkuraren saioetara gehitzeko jarduerak.

Alicia Ruiz andreak jakinarazi du Osoko Bilkurari zenbait ekimen eta proposamen helaraziko dizkiola Kontseiluan ikasleen ordezkaritza izateko, nahiz eta oraingoz boto-eskubiderik gabeko gonbidapen huts gisa izan.

6.- Osoko bilkuraren gai-zerrenda onartzea.

Batzorde Iraunkorreko kideen baiespenez onartu da maiatzaren 13ko Osoko Bilkurako gai-zerrenda.

- Aurreko akta onartzea.
- Bokal berriaren aurkezpena.
- Hurrengo jardunaldietarako gaiak
- Ikasleak osoko bilkuran sartzeko ekintzak.

7.- Galde-eskeak

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, batzordeburuak Batzordearen bilerara bertaratutako kideen parte-hartzea eskertu du.